

## Oñatiko herritarrei zuzendua.

Azken egunotan Trianako jaiak ospatzearen erabakiak zeresan handia eman duela ohartu gara. Iritzi ezberdinak sortuko zirela jakinekoa zen, eta hala gertatu da.

Jaiak ospatzearen aldeko apustua egin dugu, eta ez da erraza izan, lan eta ardura asko hartu behar izan baititugu herritarrei jai eredu ezberdin batean oinarritutako ospakizun bat eskaini ahal izateko. Ulertzen dugu txosna eta kontzertuak egoteak jendea harritzea. Hala ere, iruditu zaigu egoera eta normaltasun berri honetan eredu berri batzuk sortzea dagokigula, beti ere denon segurtasun neurrieta fokua jarriaz.

Hori dela eta, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratutako *2020ko ekainaren 18ko, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero AGINDUAN oinarritu gara aurtengo proposamena egiteko*. Udalarekin harreman estuan lan egin dugu, legeak eskatzen dituen osasun neurriak mantendu ahal izateko eta horren araberako proposamena egiteko.

Lege honetan *Aire zabaleko kultura-jarduerak eta -ikuskizunak* arautzen dituen 3.15.1 puntuaren arabera planteatu da Potx eta Lotx-en ikuskizuna; txosnari dagokionean, ostalaritzako beste edozein zerbitzu bezala, agindu bereko 3.8 puntuau (*Ostalaritzako establezimenduak eta zerbitzuak, jatetxeak, txokoak eta elkarteko gastronomikoak arautzen dituenean*) ezarritakoaren arabera antolatuko da. Azkenik, merkatua arautzeko 3.5. puntuau hartu da kontuan (*Merkataritza-establezimendu eta -lokalak, txikizakoak eta jendeari irekitako zerbitzu profesionaletako jardueretakoak, azoka txikiak eta merkataritza-parkeak*).

Ez dira betiko jaiak izango. Eredu guztiz ezberdina eskaintzen da gure egitarauan. Uste dugu, herritarron kezka asko aurtengo jaien planteamendua ondo ez ezagutzetik erorri daitekeela, beraz, hartutako neurri eta puntu batzuk azpimarratu nahi ditugu, ahalik eta argien gelditu daitezen:

- Jaien erabilerarako ezarritako eremua hesiez inguratuta egongo da. Jai Batzordea eremura sarbidea emateaz eta barruan higiene zein segurtasun neurriak bermatzeaz arduratuko da.
- Legearen arabera, eremuan %60ko aforoa baimendua dago, hala ere, distantzia handiagoak bermatzeko, gehienez %40ko aforoa egongo da (3.fasean zegoen berdina).
- EREMU GUZTIAN ZEHAR MASKARRILLA JANTZITA IZATEA DERRIGORREZKOIA IZANGO DA 1,5METROKO DISTANTZIA MANTENDU EZIN DENEAN.
- Mahaietan eserita egonez gero, maskarilla ez da derrigorrezkoa izango.
- Beste behin ere, distantziak mantentzen direla ziurtatzeko, mahaiak beraien artean 2m-ko distantziara jarriko dira gutxienez, legearen arabera 1,5m-tara jarri daitezkeen arren. Mahaiak ezingo dira mugitu, distantziak bermatzeko. Mahaiak eta aulkia desinfektatuko dira.
- Eremu barruan egon ahal izateko EZINBESTEKOIA da esertzeko aulkia izatea.
- Sarreran, irteeran, zein txosnan eskatu aurretik eskuak garbitzea derrigorra izango da eta horretarako gel desinfektantea egongo da.
- Momentu oro jai batzordeko bi kide egongo dira sarreran, aforoa mantentzen dela ziurtatzeko.

- Momentutan ez bada jarrera egokia erakusten, ordea, ekintza bertan behera geratuko da, txosna itxiz eta kontzertuak etenez.

- Txosna 1:00etan itxiko da (egitarauan jarrita dagoen moduan), gainontzeko ostalaritzako establezimendua bezala, 1:30etan terraza itxitxa egon dadin.

- Ekintza guztietai zehar osasun eta segurtasun neurriak betetzeaz arduratuko gara.

Proposamenean aginduan adierazitako baldintza guztiak betetzen direla bermatzeko, iturri ofizialetatik hartutako planoaren gainean egin du diseinua Arkitekturako Oinarrietaian Graduatutako batzordekide batek, eta plano hauek udalari aurkeztu zaizkio. Plano hauek eskuragarri daude hala eskatzen digun herritar ororentzat.

Herritarrengan konfiantza osoa dugu batzordetik. Hori dela eta, errespetuz eta arduraz jokatzeko eskatzen dizuegu guztioi, guk ere hala egingo dugu, eta hori lortzeko lanean aritu gara azken hilabeteotan.

**GARRANTZITSUA:** Arduraz jokatzen ez bada jaietarako antolatutako ekintzak bertan behera geldituko dira.

Normaltasun berri honetan jaiak proposatzen lehenengoak gara, eta argi daukagu lehenengoak izatearen ardurak dakin guztia. Aldi berean, hori kontuan izanik, kezkak, zalantzak edo beste edozein iritzi dituzten herritarrei gugana jotzeko eskatzen diegu, ahal dugun heinean elkar ulertu ahal izateko eta betiere zuon iritzia informazio osoa izanik eraiki dezazuen ([trianakojaixak@gmail.com](mailto:trianakojaixak@gmail.com) helbidearen bidez jarri zaitezkete gurekin kontaktuan).



Gogoratu egoera berria izan arren, aurrera jarraitzea ere garrantzitsua dela. Kulturako eta herriko beste langile batzuen lana bultzatzen dute auzoetako jaiek, eta gainera herritarrei kulturaz zuzenean gozatzeko aukera eskaintzen dute, guztiz garrantzitsua erronka ugariko garai hauetan.

Mila esker babesia eman diguzuen herritarrei eta gugan konfiantza erakusten duzuenoi, asteburuan ikusiko dugu elkar!

## ***“Normaltasun berrirako, jai eredu berriak”***

Oñatin, 2020ko uztailaren 6an.

Trianako Jai Batzordea.



## A los habitantes de Oñati.

Desde que anunciaríamos el pasado viernes nuestra intención de llevar a cabo las fiestas de Triana se ha generado una gran controversia en relación a esta decisión. Era de esperar que a raíz de la misma surgieran diversas opiniones, y así ha sido.

Tomar la decisión de llevar a cabo las fiestas no ha sido una tarea fácil, todxs nosotrxs hemos tenido que invertir mucho tiempo para crear un formato que pueda permitir la celebración de las mismas. Entendemos la sorpresa al ver que durante las fiestas se han organizado conciertos y que la *txosna* estará abierta. Aun así, consideramos que ante la nueva normalidad nos corresponde crear nuevos modelos enfocándonos en las medidas de seguridad pactadas por las autoridades.

Para ello, hemos creado la propuesta de este año teniendo en cuenta la *ORDEN de 18 de junio de 2020, de la Consejera de Salud, sobre medidas de prevención necesarias para hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, una vez superada la fase 3 del Plan para la Transición hacia una Nueva Normalidad*, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco el 19 de junio de 2020. Hemos trabajado estrechamente con el ayuntamiento para cumplir las medidas que se determinan en dicha orden, y hacer una propuesta acorde a las mismas.

La función que ofrecerán Potx eta Lotx el domingo se organizará según el apartado 3.15.1. que regula *Actividades y espectáculos culturales al aire libre*. La *txosna* y su terraza funcionarán, al igual que cualquier establecimiento de hostelería, acorde al apartado 3.8 de esta misma orden (*Establecimientos y servicios de hostelería, restauración, txokos y sociedades gastronómicas*). Finalmente, el mercado que tendrá lugar el domingo por la mañana cumplirá con las exigencias recogidas en el punto 3.5 sobre *Establecimientos y locales comerciales, minoristas y de actividades de servicios profesionales abiertos al público, mercadillos y parques comerciales*.

Estas, no van a ser las fiestas de siempre, ofrecemos un formato adecuado en todos sus aspectos a la situación actual. Creemos que la preocupación de muchas personas puede provenir de la falta de información sobre este nuevo formato, por lo que queremos destacar algunas de las medidas para aclarar cualquier duda que pueda haber surgido al respecto:

- El área en el que se llevarán a cabo todas las actividades de las fiestas estará delimitada mediante vallas. La comisión de fiestas se hará cargo de controlar la entrada a dicha área, y también del cumplimiento de las medidas de higiene y seguridad dentro de la misma.
- Según la orden anteriormente mencionada el aforo puede ser del 60%, pero para facilitar el cumplimiento de los límites de distancia, el aforo no superará el 40% en ningún momento (el mismo que se pedía en la fase 3).
- ES OBLIGATORIO EL USO DE MASCARILLA DENTRO DEL RECINTO SIEMPRE Y CUANDO NO SE PUEDAN MANTENER 1.5 METROS DE DISTANCIA.
- En el servicio de terraza, siempre y cuando se esté sentadx en la mesa, el uso de la mascarilla no será obligatorio.
- Una vez más, de cara a facilitar el cumplimiento de las distancias, las mesas se pondrán a un mínimo de dos metros de distancia entre ellas (aunque la orden ya permita ponerlas a 1,5m). Las mesas no se podrán mover, para mantener en todo momento dicha distancia, y tanto las mesas como las sillas se desinfectarán tras su uso.
- Para entrar al recinto es IMPRESCINDIBLE tener sitio para sentarse en las sillas.

- Es obligatorio desinfectarse las manos en la entrada, la salida y antes de pedir bebidas en la *txosna*, por lo que habrá gel desinfectante.
- En todo momento habrá dos personas vigilando la entrada para poder mantener el aforo.
- Si en cualquier momento se ve que la actitud de quienes están dentro del recinto no es adecuada, el evento que esté teniendo lugar se suspenderá y se cerrará la *txosna*.
- La *txosna* se cierra a la 1:00 (tal y como pone en el programa), para asegurarnos de que se recoge para la 1:30 como el resto de terrazas.
- Nos haremos cargo de que las medidas de salud y seguridad se cumplen durante todos los eventos.

Para asegurarnos de que la propuesta se adapta a las exigencias de la orden, el espacio ha sido diseñado por una Graduada en Fundamentos de Arquitectura con planos obtenidos en fuentes oficiales. Estos planos se han presentado en el ayuntamiento y están a disposición de cualquiera que lo desee.

Desde la comisión de fiestas tenemos plena confianza en los habitantes de Oñati. Por ello, pedimos respeto y cuidado a la hora de actuar durante la celebración de las fiestas, lo que nosotrxs también haremos gracias al duro trabajo realizado durante los últimos meses.

**IMPORTANTE:** Si en algún momento no se actúa de forma responsable, los eventos quedarán suspendidos.

Somos lxs primerxs en proponer la celebración de unas fiestas en esta nueva normalidad, y somos conscientes de la responsabilidad que ello conlleva. Asimismo, os pedimos que cualquier preocupación, duda u opinión que pueda surgir ante la presente o la programación, no dudéis en contactar con nosotrxs, para así poder resolver dichas cuestiones. Podéis poneros en contacto a través de: [trianakojaixak@gmail.com](mailto:trianakojaixak@gmail.com)

Queremos recordar que aun siendo una nueva situación es importante seguir adelante. Las fiestas de barrio apoyan a los agentes y trabajadores tanto culturales como de otros ámbitos, y además nos permiten disfrutar de la cultura de forma presencial, totalmente necesario en una época que nos plantea tantos retos como esta.

Queremos mostrar nuestro agradecimiento a todas las personas que nos han apoyado y nos han mostrado su confianza durante estos días. ¡Nos vemos el fin de semana!

***"Normaltasun berrirako, jai eredu berriak"***

*(Nuevos modelos de fiestas para nuevas normalidades)*

En Oñati, el 6 de julio de 2020,

Trianako Jai Batzordea.

**TRIANAKO  
JAIXAK**

